

EUSKARAREN

NAZIOARTEKO



EGUNA

n.b.

## Euskararen Nazioarteko Egunaren 75. urteurreneko ADIERAZPENA

# ELKARTZEN GAITUENA

Baionan, 2024ko azaroaren 26an

Euskara euskal lurraldeetako tokiko eta berezko hizkuntza da. Euskal herritarrek, belaunaldiz belaunaldi, jaso eta eman dutena: etxetik plazara. Bidean, hala ere, euskara esparru publikotik debekatzeko arau eta erabakiak aspaldikoak dira estatu espainiarrean zein frantziarrean. Euskara baztertua eta debekatua izan da; jazarria eta errespetu gabe tratatua. Eta horrek, ezinbestean, euskararen atzeraldia ekarri du: 1866. urtean, Euskal Herriko biztanleen %57 zen euskaraz hitz egiteko gai, eta gaur egun, %30 da euskalduna.

Estatu espainiarrean, 1937ko maiatzaren 29an, agintari frankistek euskarak bizi izan duen jazarpen garai gogorrenetarikoa bati eman zioten hasiera. Gerra osteko lehen urteetan, eskoletan, euskaraz egiten zuten umeei zigor gogorrak ezartzen zitzaizkien, eta kalean euskaraz hitz egiten zutenei, isunak. Horrek guztiak, kasu askotan, transmisioaren etetea eta etxe barneko euskararen erabilera zeharo murriztea ekarri zuen. Hitz bitan esanda, beldurra eta lotsa, euskaraz mintzatzeko eta euskaldun agertzeko.

Euskarekiko atxikimendua ahuldua zegoen XX. mendearen erdi inguruan, baina ez guztiz galdua, inondik ere. Gerra Zibila bukatu eta hamarkada batera, euskarak bizi zuen egoerari aurre egingo zion urrats garrantzitsu bat eman zen: Eusko Ikaskuntzak, 1948an, Biarritzen antolatu zuen VII. Kongresuan, Euskararen Nazioarteko Eguna aldarrikatu zuen, euskararen unibertsaltasuna munduari ezagutzera emateko.

Aldarrikapenean jasotzen zen, abenduaren 3a izanen zela Euskararen Nazioarteko eguna, Xabier Deunaren egunean. Eta 1949an ospatu zen, lehenbizikoz, Euskararen Nazioarteko Eguna.

Hitzez hitz, hau aldarrikatu zen adierazpenean: *“Egingen da ez bakarrik Eskual herriko hiri, herri ta herrizketan, bainan ere, Eskual herritik kanpo, hurbil edo urrun, eskualdun multxoak aurkitzen diren bazter guztietan”.*

Aldarrikapen haren xedeak hiru izan ziren:

- Beren mintzairaren amodioa piztea Eskualdunen bihotzetan, berek mintza dezaten eta beren haurreri helaraz.*
- Egun horren ohoretan, Eskuararen hedatzeko ta goraiatzeko bilkura zerbait muntatzea: hitzaldi, agerkari, edo kantari, pertsulari, eleketari...*
- Eske bat egitea, eskualdun bakotzak eman dezan hunenbertzeko bat, Eskuararen laguntzeko diru puxka bat bil dadin, haurren liburuak edo eskual ikasbideak agertarazteko.*

Euskaraz eta euskararen alde egiteko eguna izendatu zen abenduaren 3a, euskaldun gisa autoafirmatzeko; euskaraz aritzen zen komunitate bat zegoela munduari esateko; eta euskara maite zutenei euskararen biziberritzearen alde lan egiteko eskatzeko.

75 urte pasatu dira aldarrikapen hartatik. Urte hauetan guztietan euskaraz dakitenen kopurua handitzen joan da eta euskarak esparru berriak irabazi ditu, besteak beste, hezkuntza sisteman, esparru publikoan edota arlo sozioekonomikoan. Bide luzea eta malkartsua izan da, baina baita emankorra ere.

75 urte hauetan ikasi dugu, euskarak, herritarren arteko saretze-lana egiten duela; partekatzen dugun hizkuntzak, muga geopolitikoak dituela ezabatzen, eta herritarrok gaituela biltzen, hurbilekoak eta urrunekoak. Hizkuntzak duela gure herri izaera dimentsio unibertsalez janzten.

Ikasi dugu, baita ere, euskal gizartearen nortasun ikurra dela euskara, herriaren berezko izanaren berezitasun behinena, euskaldun oro ukitzen eta zipriztintzen gaituena. Euskaldun guztiok biltzen gaituen haritza.

Ez gaude 1949an. Hobeto gaude. Baina 1949ko izpiritu hura baliokoa da gaur egun ere. Euskara biziberritzeko nahi eta behar hark bizirik jarraitzen du. Horregatik, 75 urte ondoren, ozen diogu, harro gaudela gure hizkuntzaz eta egindako bidez. Kontziente gara, aldi berean, urrats esanguratsuak eman behar ditugula gure hizkuntzaren benetako

normalizazioa lortzeko. Hori horrela, etorkizunean ere euskarak plazan, kalean eta munduan dagokion lekua izan dezan, zera nahi dugu:

1. Euskararen Eguna izan dadin euskal herritarren ospakizunerako eguna.
2. Euskararen Egunak ager dezan euskaldun izateko eta bizitzeko nahia.
3. Euskara izan dadin gure gizartearen kohesiorako elementua,
4. eta, bereziki, komunitate honen parte izango diren kide berri guztien harrera hizkuntza.

Eta helburu horiek guztiak lortzeko, pauso erabakigarriak eman behar direla aldarrikatzen dugu:

1. Euskal hizkuntza-komunitatea trinkotzeko eta saretzeko jauzi berria behar da.
2. Globalizazioak, digitalizazioak eta errealitate soziodemografiko berriek dakartzaten erronkei aurre egiteko erakunde publiko-pribatuen eta herritarren arteko elkarlan aktiboa sustatu eta indartu behar da.
3. Euskal lurralde guztietan euskaraz hitz egiteko eta euskaraz bizitzeko aukerak suspertu eta bermatu behar dira.
4. Etorkizunean funtzio guztiak euskaraz betetzeko aukera emango duen berdintasunezko gizarte bat eraiki nahi bada, euskarari arnasa emango dioten politika sendoak behar dira.

Duela 75 urte bezala, badakigu, *munduko euskaldun guztiek entzunen dutela gure deia eta guztiek zerbait egin nahiko dutela gure mintzairaren alde, gurekin batera.*

Eraiki ditzagun, bada, hau guztia lortzeko bide berriak; egin dezagun bidea elkarrekin. Izan ere, lehen, orain eta gero, elkartzen gaituena gara.

#### **EUSKO IKASKUNTZAREN IZENEAN**

Lehendakaria:  
Ana URKIZA

#### **NAFARROAKO GOBERNUAREN IZENEAN**

Bigarren lehendakariordea:  
Ana OLLO

#### **EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREN IZENEAN**

Lehendakaria:  
Jean-René ETCHEGARAY

#### **EUSKO JAURLARITZAREN IZENEAN**

Hizkuntza Politikarako sailburuordea:  
Aitor ALDASORO



**EUSKO**  
**IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez